



710 ZB.KO DEKRETUA.

Oiartzungo haranean, bi mila eta hamarreko uztailaren hogeita seian.

Jardunbide Mugatuko prozedura jarraitu eta gero, 2010eko ekainaren 30ean Oiartzungo Udal Osoak hartutako erabaki bidez, Lartzabal Etxadiako urbanizazio proiektuan sartutako obren kontratua, BRUESA CONSTRUCCION, S.A. enpresari behin-behingo esleitzea erabaki zen (1.141.905,31 € prezioarekin, % 16ko BEZa barne), bere proposamena onuraragaria zelako.

Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 135.4 eta 96.2. artikuluekin adostasunean, hamabost egun balioduneko epea eman zitzaion behin betiko bermea ezar zezan eta plegu administratiboan 22. klausulan ezarritako bestelako dokumentazioa aurkez zitzan.

Horiek aurkeztuta, Legearen 135.4. artikulua 3.parrafoaren arabera, aurreko epea igaro eta gehienez hamar egun baliodunetan behin-behineko esleipena behin betiko deklaratu da.

Gaiaren inguruan Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenean jasotakoa aintzat hartuz, espedientea bideratzean aplikagarri diren legezko tramite guztiak bete direla kontuan izanik, eta Udal Osoak 2009ko maiatzaren 13an behin-betiko esleipeneko Alkatearengan egindako eskuordetzearen baitan, eta Udal Osoak 2010eko ekainaren 30ean hartutako erabakia berretsiz, ZERA ERABAKITZEN DUT:

Emandako epean BRUESA CONSTRUCCION, S.A. enpresak bermea ezarri eta aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu dituzenez, Lartzabal Etxadiako urbanizazio proiektuan sartutako obren kontratua BRUESA CONSTRUCCION, S.A. enpresari behin betikoz esleitzea, 984.401,13 €ko prezioarekin gehi 177.192,20 € %18ko BEZarengatik, (guztira 1.161.593,33 €, BEZaren igoera dela-eta), eta 6 hilabeteko gauzatze-epearekin.

Bestalde, jarritako behin-behineko bermeak itzuliko zaizkie aurkeztutako bost enpresei: CONSTRUCCIONES AMENABAR, UTE ORSA eta SASOI, UTE URBICOLAN eta ELKOR, BRUESA, ANTZIBAR.

Ordainketak Udal Aurrekontuko 1 0301 601 439 00 01 (4855/2009- 234/2010) diru atalaren kargura bideratu da.

Aitor Etxeberria / Txurio Alkate-Lehendakari Jn.ak agintzen eta sinatzen du, eta neuk idazkari naizenez, ziurtatzen.

